AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3582

EBAZPENA, 2014ko uztailaren 21ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Langileriaren Kudeaketako zuzendariarena, zeinaren bidez aldatzen baitira Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren 2012ko abuztuaren 2ko Ebazpena, eta zuzendari beraren 2012ko abuztuaren 6ko Ebazpena, María Concepción Bengoetxea Izeta andreak jarritako 230/2013 administrazioarekiko auzi-errekurtsoan Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salak 2014ko ekainaren 24an emandako Epaia betez.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salak, 2014ko ekainaren 24ko Epaiaren bidez, partzialki aintzat hartu du María Concepción Bengoetxea Izeta andreak jarri duen 230/2013 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren 2013ko apirilaren 24ko Aginduaren kontra (agindu horren bidez, ezetsi egin zen Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren 2012ko abuztuaren 6ko Ebazpenaren aurka –2012ko abuztuaren 8ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua– jarritako gorako errekurtsoa, eta arlo guztiak berresten ditu; ebazpen horren bitartez, argitara eman ziren Bigarren Hezkuntzako Irakasleen kidegoko Euskara eta Literaturako espezialitatean, txanda librean, sartzeko deitutako hautaketa-prozesuan hautatuak izan ziren izangaien behin betiko zerrendak). Hori horrela, epaiak adierazten du errekurritutako ebazpenak ez datozela zuzenbidearekin erabat ados, eta ondorioz, baliogabetu egin ditu. Era berean, epaiak aitortzen du errekurtso-egileak eskubidea duela Administrazioak puntu bateko balorazioa eman diezaion alegatutako tituluaren espediente akademikoan, merituen baremoan, prestakuntza akademikoaren atalean. Halaber, errekurtso-egileak lehiaketa-aldian lortutako puntuazioa handigoa dela-eta plazaren esleipena badagokio, hura esleitu behar zitzaion datatik dagozkion ekonomia- eta lanbide-eraginak aplikatuko zaizkio.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko uztailaren 15eko Aginduaren bidez, aipatutako epaia bere horretan bete behar dela xedatzen da.

Kidegoan sartzeko alegatutako tituluaren espediente akademikoa baloratu ondoren, María Concepción Bengoetxea Izeta andreari puntu bat dagokio lehiaketa-aldiko II.1 atalean, eta 8,0000 guztizko puntuazioa aipatutako fasean. Puntuazio horri oposizio-aldian lortu duena gehituta, 6,7050 puntukoa, eta dagokion ponderazioa egin ondoren, aipatutako hautaketa-prozesuan María Concepción Bengoetxea Izeta andrearen guztizko puntuazioa 7,1367koa da.

Horren ondorioz, irakasleen kidegoetara sartzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko otsailaren 10eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozedurak gainditu zituzten izangaien zerrendan sartu behar da izangai hori, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako kidegoko Euskara eta Literaturako espezialitatean, txanda librean.

Horregatik, aipatutako 2014ko ekainaren 24ko Epaian xedatutakoa betez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Aldatzea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren 2012ko abuztuaren 2ko Ebazpena, zuzendari beraren 2012ko uztailaren 23ko Ebazpena aldatu eta akatsak zuzendu zituena. Azken ebazpen horren bidez, Hezkuntza, argitara eman ziren Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko otsailaren 10eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduraren lehiaketa-aldian izangaiek lortutako behin betiko puntuazioak, Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaritzaren Unitateek baloratutako merituak barematu ostean, eta aldi horretako puntuazio totalak. Horiek horrela, María Concepción Bengoetxea andreak puntu bat izango du II.1 atalean, kidegoan sartzeko alegatutako tituluko espediente akademikoa aintzat hartu eta baloratu izanaren ondorioz, eta 8,0000 guztizko puntuazioa aipatutako aldian.

Bigarrena.– Aldatzea Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren 2012ko abuztuaren 6ko Ebazpena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko otsailaren 10eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduran hautatutako izangaien behin betiko zerrendak argitara eman zituena. Aldaketa horren ondorioz, María Concepción Bengoetxea Izeta andrea Bigarren Hezkuntzako kidegoan hautatutako izangai gisa sartu behar da, Euskara eta Literaturako espezialitatean, txanda librean, 2. hizkuntza-eskakizunarekin eta 7,1367 punturekin (puntuazio hori lortu da oposizio- eta lehiaketa-aldian lortutako puntuazioei dagokien ponderazioa egin ondoren).

Hirugarrena.– Hogei egun naturaleko epe bat irekitzea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunetik hasita, hautatutako izangaiak aurkez ditzan Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko otsailaren 10eko Aginduaren 11.1 oinarrian zerrendatutako agiriak, Hezkuntzako edozein lurralde-ordezkaritzatan.

Adierazitako dokumentazioa aurkezteko ezarritako epean, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, agiririk aurkezten ez badu edo agirien azterketatik aipatutako aginduaren bigarren oinarrian adierazitako baldintzetarikoren baten jabe ez dela ondorioztatzen bada, karrerako funtzionario izendatua izateko eskubide guztiak galduko ditu, hasierako eskabidean faltsukeria egin izanagatik merezi dezaken erantzukizunaren kaltetan izan gabe.

Laugarrena.– Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak praktiketako funtzionario izendatuko du María Concepción Bengoetxea andrea.

Lehiatzaile horrek esleitutako destinoan egin beharko ditu praktikak eta, agertzen ez bada, aukeratze-prozedurari uko egiten diola interpretatuko da.

Behar bezala justifikatutako arrazoiak, Langileriaren Kudeaketako Zuzendaritzak kontuan hartu dituenak, direla-eta, praktika-fasera ikasturte bat beranduago sartu behar duen izangaiak idatziz eskatu beharko du hogei egun naturaleko epean, ebazpen hau argitara eman eta hurrengo egunetik hasita. Eskaerarekin batera, ziurtagiriak ere aurkeztu beharko ditu.

Bosgarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salak du epaia gauzatzeko tramiteetan gerta daitekeen edozein gai ebazteko eskuduntza, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 103.1 eta 109. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 21a.

Langileriaren Kudeaketako zuzendaria,
KONRADO MUGERTZA URKIDI.